

Ofizioak

- Irakaslea : Zer ofizio egin nahi zenukete ? Bakoitzak bere gogoa erran beza.
1. ikaslea : Nik, etxeak eraiki nahi nituzke. Etxe handi eta azkarrak eraiki nahi nituzke. Hargin izan nahi nuke.
2. ikaslea : Nik eriak artatu nahi nituzke, pikurak egin eta sendagaiak eman eta bereziki gaizki direlarik kemena eman.
- Irakaslea : Sendagile beraz ?
2. ikaslea : Ez, erizain klinika edo ospitale batean.
3. ikaslea : Nik kanpoko lanak maite ditut eta laborari izan nahi nuke. Ardi tropa bat banuke eta gasnak eginen nituzke, Lapurdi osoko gasna hoberenak.
4. ikaslea : Nik, haurrak zaindu nahi nituzke. Eskola batean edo haurtzaindegi batean lan egin nahi nuke. Uste dut ttipiekin lan egitea nahiago nukeela.
- Irakaslea : Eta zu, mutu zaude. Zer da zure ametsa ?
5. ikaslea : Marexal izan nahi nuke, abereak sendatu nahi nituzke.
6. ikaslea : Nik iturgin izan nahi nuke, aita bezala. Berogailuak, ur-hodiak, garbigelak muntatu nahi nituzke.
7. ikaslea : Okin izan nahi nuke, egun guzia usain gozoen artean iragan. Mota eta kolore guzietako pastizak egin nahi nituzke. Erosleak pozik lirateke nirekin !
8. ikaslea : Kamioi-gidari izan nahi nuke. Mundu guzia kurritu nahi nuke, egun batez hemen, biharamunean beste nonbait; xoria bezain libre nintzateke.
9. ikaslea : Ile-apaintzaile izan nahi nuke. Bezero bakoitzari erranen nioke ileak nola moztu, nola koloreztatu, nola apaindu behar lituzkeen.
10. ikaslea : Nik baratzezain izan nahi nuke. Orain jendeak ez du astirik bere kanpoa txukun atxikitzeko. Segur naiz lana banukeela belar eta hesi moztan eta lili ereiten.
11. ikaslea : Nik ordenagailuekin lan egin nahi nuke. Gure etxekoa beti panan da eta aldi guziez teknikari bat jinarazi behar dugu. Nihaurek ikasiz nihaurek konpon nezake !
5. ikaslea : Eta zuk, beste lanbide bat hautatu behar bazenu, zein hauta zenezake ?
- Irakaslea : Ez duzue sekula asmatuko : IRAKASLE, zuek bezalako ikasle zintzoekin lan egiteko.
- Ikasle guziak oihuka : UEEEEEEEE!!!!!!!!!!!!!!

Jokalariak : Irakaslea eta 11 ikasle
Autorea : Kattalin Sallaberry
Argitaratzailea : Ikas
Argitaratze data : 2010/12/21
Maila : 3. ziklotik goiti